

Heriotza, txoriak eta abar


Alex Gurrutxaga

Bernardo Atxagaren literaturan, hibridoek hasieratik daukate toki esanguratsua, eta azken urteotan ere hor daude. Hibridoak dira, nola edo hala, *Lekuak* (2005), *Paradisua eta katuak* (2012) eta *Nevadako egunak* (2013). *Txoriak kolpeka* liburua bi ipuinek eta saiakera batek osatzen dute, eta saiakera hori, *Lawrence Arabiakoa*, narrazioaren mugetan dago. Fantasia da Atxagaren literaturan, gutxi-asko, beti egon den beste osagai bat. Jadanik baieztatu daiteke hortik indar handia datorkiola. Kasu honetan bi ipuinak fantastikoak dira, eta saiakerak ere badu halako kutsu bat.

Nahiko tonu desberdineko narrazioak dira hirurak, baina giro antzekoa dute. Hor daude bizitza arruntaren mugak, utopiak edota patua; eta horien guztien gaindik, heriotzaren eta presagioen gaia. Maila sinbolikoan, *Paradisua eta*

katuak harribitxiaren ifrentzu gisa ere irakur daiteke liburua: paradisuako eginak gara, esaten zuen han katuak, baina baita heriotzarako ere, esaten dute hemengo animaliek –beleak, esfinge atropos tximeletak, txoriak–.

Pierrek dioena entzuten dut ipuinean, hain justu, erleen bizimoduaren eta gizakiaren bizitzaren arteko alderaketa ilun bat egiten da. Bikote harremanez eta haurrak izateaz ari da, batez ere, narrazioa. Baina sinbolismo ilun



'Txoriak kolpeka'

Egilea: Bernardo Atxaga. **Argitaletxea:** Pamiela.

horretan badago funtsezkoa den beste kontu bat ere. Izan ere, ipuinean irakurtzen dugu François Huberrek erakutsi omen zuela «borondateak fatalitatea gandi dezakeela», baina kasu honetan –eta literaturan, beti– fatalitatea funtsezkoa da: «Gure patua ere idatzita dago».

Beste ipuinean, *Andoniren heriotza LSDaren argitan* izenekotan, bidaia ezinezko bat egiten du narratzaileak. Bertan, alde batetik, heriotzaren garapen modukoa erakusten du: tumuluak, cromlechak, hilobiak. Bestetik, denik eta galdera handiena egiten du: nola jokatu heriotzaren aurrean. Heriotza berbera da egun eta orain 800.000 urte; baina gizakia ahula izan, eta heriotzaren aurreko azalpenak –presagioak, mitoak, erlijioak– heriotza bezain zaharrak dira. Ipuin bikaina da: iruditerian aberatsa, fantasia indartsuz kargatua eta umore printzekin bustia.

Azkenik, *Lawrence Arabiakoa* saiakera pertsonaia hari buruzko

kontakizuna da. Motiboa, berez, *Nevadako egunak*-etik dator, handik kampo uztea erabakitako pieza garatu bat baita testua; ez da zaila berau hango iruditeria-kin lotzea, zaldi basatiekin eta desertuarekin –*Andoniren heriotza*-n ere desertua dago, eta ez da kasualitatea Virgilioren aipua Pierrek dioena ipuineko zuhaiztiari buruz-. Atxagak esan duen bezala, Lawrence buruzko filmak «desertuaren inguruko inpresio bat eman zidan eta eragina izan du nigan, gaur arte». Testua saiakera bat bezala hasten da, eta pixkanaka kiribilduz joaten. Bistakotik abiatzen da, Lawrence figuraz eta haren ospeaz pentsatzen; eta apurka ezkutukoan sartzen da, ahozko istorioez, zurrumurruez eta heriotzaren esanezinez hausnartzeko.

Bernardo Atxagak zerbait berezi lortzen badu, hori da bere obrei hazteko gaia eta gaitasuna ematea. Irakurketatik irakurketara, keinuak, nabardurak agertzen joango zaizkizu, eta aurreneko eskailera-mailan ipuin polita zena, iradokizunetz kargatuko da mailak igo ahala. Horrelaxe mundu bat...



'Euskaldunon Komunitatea Independentziatik haratago'

Egilea: Galdos. **Argitaletxea:** Arabako Foru Aldundia.

Becerro de Bengoa sariketa sarria irabazi zuen egileak liburuhonekin. Festaren bitartez, komunitateek beren hizkuntza babesteko behar duten indarra biltzen dutela azaldu du, besteak beste.



'Beste hitz batzuk'

Egilea: Jose Serna. **Itzultzailea:** David Tijero Osorio. **Argitaletxea:** Arte Activo Ediciones.

Ebanjelioa egungo gizartearen gaitz nagusiekin uztartu ziotuen Jose Sernak 2006an argitaratu zuen poema liburua honetan. Presentzia handia du gizakiak gizakiaren aurka ekiteko duen temak, eta horretarako erabiltzen dituen askotariko arnei buruzko gogoetak.



'Pinky pailazoa'

Egilea: Josu Lartategi. **Argitaletxea:** Elkar.

Arian euskara ikasteko metodoaren parte gisa kaleratu du Elkarrek Josu Lartategiren narrazio hau, audioliburuarekin batera, entzumen lantzeko. Pinky pailazoak ume bakartiak desagerarazten ditu. Haren atzetik, Richard Smith inspektoreak Euskal Herrira daraman pista bat du.

Zalantzatia adoretu



Imanol Mercero

Nolabaiteko talka edo ezinegona sor lezaketen haurren ezaugarriak plazaratzeaz arduratzen den bilduma ezagun honek dagoeneko 26. alea kalera tu du.

Oraingoan, protagonista hamar bat urteko neskatua da, ipuina bakarrizketa gisan kontatzen diguna. Ez da beste inoren ahotzik agertzen, zeharka ez bada. Izenburuak iradokitzen duen bezala, haurrak uste du ez duela irudimenik, eta andereño Arantxak idazlan bat egiteko eskatu dionean, irtenbide gabeko arazo baten aurrean sentituko da, hala koetan burua zurian geratzen zaiolako. Gauean, lotan dagoela, bere eskolako koadernoarekin amestuko du, idazlana jaso behar

duen koaderno horrekin, eta, bien arteko elkarriketaren bidez, arazoari irtenbidea aurkituko diote. Amaieran haurra konforme agertuko da, arazoa gaindituta daukala sentitzen duelako.

Liburua irudiz ongi hornitua dago, bi orrialde bakoitzeko bat, denera orri beteko 14 ilustrazio. Narrazioak proposatzen duen istorioaren testuingurua deskribatzen dute, eta kontaktaren fokua non dagoen antzematen laguntzen dute.



'Ez dut irudimenik, eta zer?'

Idazlea: Noemi Gallego. **Ilustratzailea:** Leire Salaberria. **Argitaletxea:** Elkar.

Onarpena



Imanol Mercero

Usainak eta haur jaioberriak gurutzatzen direnean halako sentipen gozo eta bizia sortzen da norbere baitan. Hel-duoi zaila egiten zaigu jaioberrien aurrean adur jarioan ez ipintzea. Baina badira egoera horren beste ikuspuntu batzuk. Demagun ordua arte etxeko txikiena izan denak, esaterako, titulua kendu berri dion jaioberriak duen ikuspuntua. Bada, une delikatu horretaz ari zaigu *Maddalenen usaina*.

Eta kontatzen dena ere ez da denboran asko luzatzen. Aitarekin parkera joatekotan den haurrak, Xabierrek, araba Maddalenekin egiten dituen bi keinu eta hiru hitzak deskribatzen zaizkigu. Baina denak du bere esanahia eta balioa. Testuak, bere xumean, elkarren onarpenerako keinuak erretzatzen ditu, era oso erre-

listan, haurra narratzaile ipinita, guraso eta jaioberriaren hitzak ere plazaratuta, natural-natural.

Letra tamaina handiarekin, orrialdeko paragrafo bat agertzen da, ezkerretara, eta eskuinetara ilustrazio bat. Kolore apaletan, nagusi diren hori eta gorriekin kontrastean turkesa agertzen da. Ilustrazioek interpretatzeko joera dute, bai egoera, bai pertsonaiak berak ere.



'Maddalenen usaina'

Idazlea: Yolanda Arrieta. **Ilustratzailea:** Eider Eibar. **Argitaletxea:** Ibaizabal.